

Euskadin 10.687 atzerriko etorkin gazte bizi dira


1991n baino 8.034 gehiago eta Bizkaian etorkin gazteen %51 bizi dira, 2001eko zentsuaren arabera. %45ek 25 eta 29 urte bitarteko adina dute; batez ere, Amerikan dute sorlekua (%48,9).



15 eta 29 urte bitarteko atzerriko etorkinen kopuruak gorakada nabarmena izan du Euskadin 1991tik 2001era: 1991n atzerriko etorkinak Euskadiko gazteen %0,5 ziren; 2001ean portzentajea %2,4raino igo da.

Igoera hau hiru lurralde historikoetan somatu da. Etorkinen %51 Bizkaian bizi dira, %28 Gipuzkoan eta %21 Araban.

15 eta 29 urte bitarteko atzerriko etorkinen kopuruaren bilakaera. Zenbaki absolutuak. 1991-1996-2001



Iturria: Eustat eta bertan egina

2001eko datuak adin-taldeen arabera aztertuz gero, aipagarria da 25-29 adin-tartean etorkin gazteen %45 kokatzen direla; %36 20-24 adin-tartean; eta %19 15-19 adin-tartean.

2001eko zentsuko datuek adierazten duten bezala, azpimarratzekoa da Euskadira heltzen diren etorkin gazteen jatorrizko kontinente nagusia Europa izatetik Amerika izatera pasatu dela.

1991ko eta 1996ko zentsuetan ageri zenez, atzerriko etorkin gazteen erdia, gutxi gora-behera, Europatik etorritakoa zen. 2001ekoan, ordea, atzerriko etorkin gazteen %48,9 amerikarrak direla ikus daiteke. Afrikatik datozenen kopuruak gorakada egonkorra izan du, azkeneko hiru zentsuen datuek aditzera ematen duten bezala.

Euskadiko etorkin gazteen jatorria (15-29 urte)

	1991	1996	2001
Europa	56,3	49,3	24,1
Amerika	23,5	25,9	48,9
Afrika	16,4	19,0	22,3
Asia	3,0	5,3	4,6
Besteak	0,8	0,5	0,2
	100	100	100

Iturria: Eustat eta bertan egina

Esteka: Gazteen Euskal Behatokiko [estatistikak](#)

Erlazionaturiko taulak:

[1. Taula](#)

[2. Taula](#)

[3. Taula](#)